



ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN **AUZOAK PROGRAMAKO** laguntzak emateko deialdia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU)

.....jaunak/andreak,zenbakidun NANA duenak,

.....jaunak/andreak,zenbakidun NANA duenak,

Eta hura ordezkatzuz (hala dagokionean bakarrik):

.....jaunak/andreak,zenbakidun NANA duenak,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

(“Laguntzak eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa” I. eranskineko o) eta p) puntuak betetzea; 349/2022 Ebazpena, maiatzaren 25ekoa, Etxebizitzako zuzendari nagusiak emana)

1. Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan aipatutako deialdiari dagozkion laguntzen xede diren lanak sustatzen dituen dela.
2. Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan aurreikusitako egoeretako batean ere, artikuluko horietako e) letran aurreikusitako debekua izan ezik, zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko betebeharrari buruzkoa. Orobat, berariaz aipatu beharko da ez duela beste dirulaguntza edo laguntza batzuk itzultzeko betebeharrak, edo, izanez gero, zorrotz bete dituela betebeharrak horiek, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori).
3. Ez duela jarduketa edo helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso. Bestela, eskatutako eta, hala badagokio, lortutako laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, baita hori zer administrazio, organismo edo erakunde publikok eman duen ere.
4. Eskatutako dirulaguntzari dagozkion zeharkako zergak ezin direla berreskuratu edo konpentsatu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 28.8 artikuluan xedatutakoaren arabera. Bestela, berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergen xehetasunak emanen dira.
5. Jarduera ekonomikoak edo komertzialak egin arren, ezin dela krisialdian dagoen enpresatzat hartu (2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluan 18. apartatuaren arabera), eta ez duela jaso ez oraingo ekitaldi fiskalean, ezta aurreko bi ekitaldi fiskaletan ere, hauekin batera, 200.000 euroko edo gehiagoko laguntzarik. Bestela, uneko zerga ekitaldian eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan emandako laguntza guztien xehetasunak emanen dira.
6. Eskatutako laguntzaren xede den jarduketa gauzatuz gero, ez dagoela EBren interes ekonomiko eta finantzarioen aurka joan daitekeen interes-gatazkarik, arauak betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta beharrezko neurriak hartzen dituela iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta

antzemateko, eta, hala badagokio, agintari eskudunei jakinaraziko dizkiela ikusitako edo ezagutzen dituen ez-betetzeak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunen bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako laguntzak, bai eta dagozkien berandutze-interesak ordaindu ere.

Eta hala ager dadin, honako hau sinatzen dut(e)n, egunean. .
(Hala badagokio, sinadura guztiak jaso behar dira)